

## **ENPRESEN GOBERNU ONA ETA INFORMAZIO GARDENTASUNA KONTABILITATE ARLOAN**

**ITZIAR AZKUE IRIGOYEN**

Finantza Ekonomia I Saila - EHUko Unibertsitate Eskolako Irakasle Titularra

### **1. SARRERA**

Balore etikoak modan al daude? Edo agian galdetu beharko genuke ea modaren menpe egon behar duten. Ezezkotan nago. Baina merkatuen eta enpresetako zuzendarien jarrera ikusirik, badirudi «todo vale» edo «el fin justifica los medios» lemapean aritu beharra dagoela. Eta gero gerokoak ..., Enron, IBM, Xerox, WorldCom, General Electric, Tyco, Merk, ... Zer gertatu zaie? Zer egin dute? Sormen kontabilitatea- gaztelaniazko contabilidad creativa delakoa- erabili, maulazko edo iruzur kutsua duten Urteko Kontuak argitaratzeko eta inbertsoreak erakartzeko. Gainera, badirudi Estatu Batuetako ikuskaritza elkarte nagusienek beren laguntza eskaini dutela informazio edo desinformazio sare hau ekoizteko. Eta European beste hainbeste: Gescartera, Ahold, ... Horregatik diote auditoreek sinesgarritasuna galdu dutela, enpresek ez omen dute informazio gardenik erakusten eta azken batean, analistek ere ez dute enpresen egoera errealean berri ematen.

1997an Gobernu espainolak Olivencia Komisiao eratu zuen eta 1998ko otsailean Txostena edo «Código Olivencia» deritzona argitaratu zuten kotizatzen zuten enpresek eta kapitalen merkatuek bete beharreko gobernu onerako arauak emanez. 2002an beste Komisiao Berezia osatu zen kotizatzen duten enpresen eta merkatuen Gardentasuna eta Segurtasunaren aldeko txostena egiteko, «Informe Aldama», 2003ko urtarrilean aurkeztua. Alemanian esaterako iaz Cromme Txostena onartu zuten; Frantzia eta Italian ere gobernu onaren kodigoak berrikusi dituzte, eta britaniarrek 1992eko Cadbury Txostenean oinarrituta Higgs eta Smith Txostena argitaratu dute.

Txosten guztia hauek, zerbaiterako balio al dute? Izan ere, nork jartzen ditu balore etikoak? Nork jarraitzen ditu? Nori interesatzen zaio?

Nik uste pertsonen heziketaren oinarria, txiki txikitatik erakutsitako jokabide zuzen eta zintzoetan dagoela, azken batean irizpide eta balore etikoak irakatsiz. Sozietateen gobernuan ere hala beharko luke. Kontua da konkurrentzia, globalizazioa, mozkinaren helburua, ... bat ote datozen jarrera honekin. Eta beste kontua da, onartu berri diren etika eta gobernu onaren kodeak, ez ote diren fatxada hutsa. Ideologikoki izan dezaketen helburua lortzeko ahalmena izango al dute?

Sortzen zaidan beste zalantza zintzotasuna eta etika, aukerako zerbait den jakitea da. Moda kontua al da? Aldakorra al da? Pertsonen asmatutako zerbait al da? Edo pertsonen gainetik dagoen zerbait da? Izan ere, etika filosofiaren atala da, gizakiaren moralala eta betebeharrei buruz aritzen dena. Hausnarketa sakona egin behar guke guztiok ea bizitzan, lanean, hezkuntzan, gizartean, enpresen kudeaketan, ... etika zenbatean baloratzen dugun eta zenbatean baloratzen den.

Sarrera honetan aipatzen diren arazoak hiru puntutan laburbilduko ditut:

- Informazioaren gardentasuna: Aldama txostena.
- Auditoreen jarrera: independentzia.
- Kontabilitatearen helburua: irudi fidela eta sormen kontabilitatea.

## 2. ALDAMA TXOSTENA

Esan bezala, Aldama Txostena kotizatzen duten enpresen eta merkatuen gardentasuna eta segurtasunaren aldeko txostena da. Lan honen emaitza Gobernuak erabakiko dituen arauetan gauzatuko da.

Oro har, txostena ondorengo 8 puntuetan laburtzen da:

- 1) Gobernu onaren urteko txostena  
Burtsan kotizatzen duten enpresek korporazio gobernu onaren praktikak izan duen garapenaren berri eman behar dute urtero, enpresaren txostenean barneratuta edo beste agiri baten bidez.
- 2) Kontseilarien lansariak  
Kontseilari bakoitzak jasotzen duen ordainsaria urteko enpresaren memorian adierazi behar da, kontzeptu bakoitzaren sailkapen zehatzare-

kin (emandako akzioak, stock options,...). Gainera, batzar orokorrak onartu behar du. Kontseilaria, era berean zuzendaritzako partaide baldin bada, ordainsariak bereizteko aukera egon badago.

- 3) Blindajeen aurka  
Aldama Komisioak, kontrol aldaketa eta lan kanporaketetarako blindajeak ez ditu aukera egokitzen hartzen. Hala ere, arautze zaila izanagatik, administrazio kontseilu bakoitzaren esku uztea deritzo.
- 4) Kanpo kontseilariak eta independenteak  
Kontseilariak enpresa kanpokoak behar dute izan gehiengo batean. Eta maila honen barnean, gainera, neurri garrantzitsuan independenteak izan daitezela gomendatzen du. Hala ere, administrazio kontseiluan kapitalaren ordezkapena ere kontutan hartu behar da.
- 5) Presidente exekutatzailea  
Michavila merkataritza kodean aipatutakoarekin alderatuz, ez du ezer esaten kontseilu presidentek funtzio exekutatzaileak burutu ezintasunari buruz. Izan ere, lider egokia galtzeko aukera izan daitekeela ondorioztatzen da.
- 6) Adinaren muga  
Ez da mugarik aipatzen, nahiz Michavila kodean kontseilari 70 urteko muga ezartzea proposatzen zen.
- 7) Internet eta informazio simetrikoa  
Posta elektroniko bidezko botoa, quorum-ak zenbatzeko sistema elektronikoak, kotizatzen duten enpresek Internet orria izatea enpresaren informazioa eskuratu ahal izateko, etab. eskatzen da. Izan ere, gutxiengo partaidetza areagotu nahi da.
- 8) Finantza Analistak eta beren gomendioak  
Sektorearen erregulazioa eta finantza analisten independentzia aldarrikatzen da. Gainera, ordainsariak inola ere ez dute emandako gomendioen arabera izan behar.

Aldama txostena ardura handiarekin egin izan arren, enpresek nola hartu eta nola aplikatuko duten ez dago argi. Oinarrizko gakoak enpresek ekoizten duten informazioan datza. Behin eta berriz aipatzen da enpresek urteko txostena igorri behar dutela korporazio gobernuari buruz, eta bestetik informazio oro web orrien bidez eskuragarria behar duela, eguneratua eta osatua izateaz gain. Informazioa behar beharrezkoa da, eta informazioak ona behar du. Ho-

rretarako arauak bete behar dira. Eta ez betetzea erabaki bada, horren arrazoiak ezagutarazi behar dira; hori da behar bezalako informazioa ematea, eta hor dago koska. Guzti honen ildoan, argitaratu berri da kotizatzen duten sozietate anonimoek enpresako informazio nabarmena edozein bide tekniko, informatiko edo telematiko bidez zabaldu dezaketaren araua, beti ere informazioa eguneratuz eta web orri bitartez akziodunen informazio eskubidea bermatuz.

Informazioaren garrantzia erakusteko adibidea, AECA (Asociación Española de Contabilidad y Administración de Empresas) erakunde ospetsuak antolatu duen AECA II Saria dago: Internet bidezko finantza informazio egokiena aurkeztu duen enpresa aukeratu da, IBEX-35-ean kotizatzen duten enpresa guztiak parte hartu dutelarik. Aurtengo saritua Santander Central Hispano izan da. Era berean 2003ko irailean ospatuko den XII Kongresua antolatu du, «enpresa gardentasuna eta jakintzaren gizartea» lemapean.

### 3. AUDITOREEN INDEPENDENTZIA

Azkeneko urteetan Ikuskaritza Legearen estatu erreforma hizpide izan da foro eta bilera desberdinetan. Lanbidea batik bat kezkatzen zuten gaiak erantzukizun erregimena, bateraezintasunak eta kalitate kontrola ziren, Europar Batasunean ere aztergai zirenak. Kontutan hartu behar da Ikuskaritzaren funtzio nagusia interes soziala babestea dela, hau da, gizarteak enpresetatik jasotzen duen informazio kontablearen fidagarritasuna, era objektibo eta independentean, egiaztatu eta agerian jartzea.

Europako Komisioak auditoreen bateraezintasunei buruz argitaratu duen gomendioak atzerapenak izan ditu, Estatu Batuetan Enron kasuaren ondoren ikuskaritza firmen independentziaren arauak berrikusi baitira eta hauen emaitzak ezagutu nahi baitziren. Eta bidebat estatuko erreformaren atzerapena eragin dute, non Europar aintzat hartzen zena osotasunean jarraitzea erabaki baitzen. Azkenean, Ikuskaritza Legearen erreforma zirt zart Finantza Sistemaren erreformarekin korapilatu da: 44/2002 Finantza Legeak, auditoreen lanbidearen bateraezintasunetan zehaztapenak eragin ditu, hau da Ikuskaritza Legea aldarazi du gai zehatz honetan. Auditoreek ez dute begi onez ikusi Finantza Legearen bidezko arau aldaketa, baina ICAC-eko (Instituto de Contabilidad y Auditoria de Cuentas) presidentearen hitzetan, behar beharrezkoa zen Europar Batasunean argitaratutako auditoreen independentziarako gomendioa lehenbailehen eta hitzez hitz aplikatzea, eta hori egin da, beste egoera berririk barneratu gabe.

Ondorioz, Finantza Sistemaren erreforma neurrien 44/2002 Legeak *Ikuskaritza Legearen* 8. artikuluan —auditoreen independentzia garatzen da— al-daketa hauek barneratu ditu:

1. *Kontuen Auditoreek beraien funtzioen jardueran ikuskatutako enpresa edo erakundeekiko independente izan behar dute eta horrela agertu behar dira —deberán ser y parecer independientes—. Kontabilitate agiri-riren berrikuspenean, auditorearen objektibotasuna zabalantzan jar daite-keenean lanari uko egin behar diote.*
2. *Independentzia agindua nola betetzen den zaintzeko ardura Kontuen Ikuskaritza eta Kontabilitate Erakundeak (ICAC) du, baita kontuen au-ditore edo ikuskaritza elkarteetan lan bakoitzean independentzia eza az-tertzeko eta baloratzeko ardura ere.*

*Beste lege batzuek jaso dezaketen bateraezintasunetaz gain, ondorengo egoera hauetan enpresa edo erakunde batean ikuskaritza jarduera buru-tu ahal izateko auditoreak independentzia nahikoa ez duela ulertuko da:*

  - a) *Ikuskatu den enpresan edo zuzenean zein zeharka erlazionatua da-goan erakundeetan zuzendaritza zein administraritzako karguak izatea edo bertako langile, zein barne gainbegiratzailerak izatea, erregelamenduak garatzen dituen egoera eta baldintzetan.*
  - b) *Ikuskatuko den enpresan zuzeneko finantza interesa izatea, edo ze-harkakoa garrantzitsua bada.*
  - c) *Enpresa edo erakundeko enpresariekin, zuzendariekin edo adminis-tratzaileekin bigarren gradura arteko odolkidetasun edo kideetasun lotura edukitzea.*
  - d) *Ikuskatuko den enpresa edo erakundearen kontabilitatea eraman edo kontabilitate agiri zein finantza egoerak prestatzea.*
  - e) *Ikuskaritza bezeroari, finantza agiriak ekoizteko behar diren datuen finantza informazio teknologia sistemen diseinu eta martxan jartze zerbitzuen eskaintza egitea.*
  - f) *Ikuskaritza bezeroari, finantza agirietan zenbateko esanguratsua adierazten duten hainbat kontzepturen neurketarako balorazio zer-bitzuak eskaintzea.*
  - g) *Bezeroari barne ikuskaritza zerbitzuak ematea.*
  - h) *Ikuskaritza bezeroarekin bestelako enpresa harremanak izatea.*
  - i) *Abokatutza zerbitzuak ikuskaritza zerbitzuekin batera ematea.*
  - j) *Goi mailako zuzendari edo langileen kontratazioan partaidetza zuze-na izatea.*
  - k) *Txostena sinatuko duen bazkideak auditoria ez bestelako zerbitzuak eskaintzea.*
  - l) *Bezero bakar batengatik Ikuskaritza zein beste zerbitzuengatik jaso-tako ordainsariak auditorearen sarreren portzentaje oso nabarmena direnean, etab.*

- m) *Beste legezko xedapen batzuetan adierazten diren egoerekin batera ezinak direnak, bertan espresuki adierazten diren eduki eta eremuarekin.*

Begi bistakoa da ikuskaritza goi mailako balore etikoetan oinarritutako zerbitzua dela, edo behintzat izan behar duela. Eta horretarako independen-tziaren jarrera hurbiletik zaintzen dela.

#### 4. SORMEN KONTABILITATEA

Sormen kontabilitatea ikuspegi desberdinetatik aztertua izan da, baina akademikoki Naserrek (1993) ondorengo definizioa eman zuen<sup>1</sup>: «La contabilidad creativa es la transformación de las cifras de contabilidad financiera de los que son actualmente a lo que se desea que sean, aprovechando las normas existentes y/o ingnorando algunas de ellas».

Hainbat kasutan, kontabilitate araudiak egite ekonomiko bera kontabilitate metodo desberdinenekin islatzeko aukera ematen du, agiri kontabletan izan dezakeen eraginarekin. Beraz, kasu hauetan «legearen babesean» aukera bat zein bestea eginez informazioa emango da. Kontua da, erakutsiko den enpresaren irudia enpresari komeni zaiona izango dela, eta ez beti goraiatzatzen den irudi fidela.

Zentzu honetan, herrialde anglosaxoiek duten kontabilitate sistema dela eta, esku erabilera edo manipulazio hauek egiteko aurretik gertu daudela esan daiteke; izan ere kontabilitate politika aukeraketan askatasun zabala baitute. Oro har, kontabilitate arauen aldaketa garaiak ere oso aproposak dira, ezjakintasungatik edo alderantziz, arauen interpretazio berezi, zein zehatzengatik informazioaren manipulazioa egiteko.

Badira lan desberdinak gai hau jorratu dutenak, eta informazioaren esku erabilera zein sormen kontabilitatea legearen mugeetan aplikatzeko balore etikoaren garrantzia aipatzen dute. Aztertu ohi diren faktoreen artean ekonomi zikloaren eragina ere nabarmena da, batez ere krisi garaiak, eta enpresa zehatzen artean, kaudimengabezia arazoak dituztenak.

Etorkizunari begira, 2005erako, kotizatzen duten enpresek kontu bateratuak Kontabilitate Arau Internazionalak (gaztelaniazko NIC edo ingelesezko IAS)

---

<sup>1</sup> Ikus Amat, O., Blake, J. (2002): *Contabilidad creativa*. 12. orrialdea.

aplikatuz aurkeztu behar dituzte. Arau hauek nahiko zehatzak eta konplexuak izateaz gain, aukera desberdinetan oinarrituak daude, beraz sormen kontabilitatearekin kontuz ibili beharko gara.

Hainbat elementutan gainera, balorazio sistemen artean, «*arrazoizko balioa*» (fair value) erabiltzeko aukera emango da. Kasu gehienetan, arraziozko balioa, merkatu balioa izango da, hain zuzen. Beraz auditoreen lanean ere zailtasunak barneratuko dira merkatu balioa ezagutu behar baita eta kanpo aholkulari, peritu eta tasatzaileen beharra sorraraziko da. Guzti honen kontrola nork egingo dituen, nola egin behar diren, ... erabaki behar da.

## 5. ONDORIOAK

Arazoak ez dira inoiz banan bana etortzen. Korapiloa nahiko mardula da, baina hari mataza askatzen saiatuz gero kontabilitate informazioaren erabilgarritasuna bermatua aterako denaren esperantzaz lan egin behar da.

Alde batetik enpresa buruen etikazko jokaera espero behar da. Bestetik, enpresek emango duten informazioa geroz eta gardenagoa baldin bada, eta kontabilitate informazio hutsaz gain, beste finantza indikatzaileak emango badira, informazioaren erabilgarritasunaren aldetik aurrera pausu garrantzitsua emango da. Azkenik, auditoreen lana ere kalitatezko zerbitzua bilakatu denez, guztiak kontutan harturik finantza informazioaren etorkizuna itxaropentsu ageri da.

Ikerketa lerro garrantzitsua dago finantza informazioaren aurreikuspen gaitasunaren inguruan eta lan hauen emaitzak hurbiletik zaintzen saiatuko gera.

## 6. BIBLIOGRAFIA

AMAT, O., BLAKE, J. (2002): *Contabilidad creativa*. Ediciones Gestión 2000. Barcelona.

ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE CONTABILIDAD Y ADMINISTRACIÓN DE EMPRESAS (AECA) (2002): *Código de Buenas Prácticas para la Divulgación de Información financiera en Internet*. Madrid, noviembre.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES (2003): Proyecto de Ley 121/000137 «Por la que se modifican la Ley 24/1988, de 28 de

julio, del Mercado de Valores, y el texto refundido de la Ley de Sociedades Anónimas, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1564/1989, de 22 de diciembre, con el fin de reforzar la transparencia de las sociedades anónimas cotizadas». Congreso, 28 de marzo, núm. 137-1.

COMISIÓN ESPECIAL PARA EL ESTUDIO DE UN CÓDIGO ÉTICO DE LOS CONSEJOS DE ADMINISTRACIÓN DE LAS SOCIEDADES (1998): *El gobierno de las sociedades cotizadas*. Madrid, 26 de febrero.

COMISIÓN NACIONAL DEL MERCADO DE VALORES, introducción de F. SERRANO MORACHO (2000): «Cómo evaluar al Consejo de Administración de la empresa». *Partida doble*, n.º 112, páginas 46 a 49, junio.

INFORME DE LA COMISIÓN ESPECIAL PARA EL FOMENTO DE LA TRANSPARENCIA Y SEGURIDAD EN LOS MERCADOS Y EN LAS SOCIEDADES COTIZADAS (2003).

REVERTE MAYA, C. (2002): «La investigación sobre la capacidad predictiva de la información financiera: revisión crítica y perspectivas de futuro». *Revista de contabilidad* - Vol. 5, n.º 10, pp. 105-136. Asociación Española de profesore Universitarios de Contabilidad, Santander.

SADGROVE, K. (2000): *La gestión del riesgo en la empresa*. AENOR.

VILLARROYA, M.B., RODRÍGUEZ, M.C. (2003): «La manipulación contable: el perfil de las empresas manipuladoras». *Partida doble*, n.º 143, páginas 54 a 63, abril.